


BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz

302n. zenbakia

urterrilla 2005



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

1.- ZELAIETAKO LORAK ETA NEGUKO LOA

Aretxare deritxon toki zoragarri baten gagoz. Zugatze-tan orri urdin eta bellegiak agiri dira. Orri-bitarteetatik zeru urdiña ikusten da. Dana polita, ederra. Baiña zerbait peitzen da: or diran margo eder orreik osotzeko, lora batzuk sartu bear doguz.

Pagoen enborrak, jantzi zuriz apainduak dira. Oin-inguruan bedar orlegiak daukaz, baiña bedarren artean apaingarri zoragaria izaten dira lili zuriak eta ubelak.

Kukuak joten dauanean eta orlegi-artean lore margo-tsuak agertzen diranean, au esaten dau nekazariak: Ona emen udabarria!

Landa orlegi zabaletan, bedarren artean, begi aundi-dun pitxi-lorea apaingarri izaten da. Antxiñakoak lora au illargiari eskiñita euken. Pitxoletak bere gordeleketik , aize eta eguzki pizka bat artu nairik jagiten diranean, neskatilla dantzari baten antza dauka

Begiratu egizue loren biotzera, ez dozue aurkitu margo baltz utsik, iñoz bai urdiña ta ubela nastauta.

Batzutan nekazariak, kaltegarri izango diralakoan, bere solotik lora batzuk kendu egiten dauz. Mingarria benetan! Larretan dagozenai, beintzat, parkatuko dautse bizi-gurea.

Lora bakoitxaren izenak, beronen itxura adierazten dau, esaterako, inglesak “azeri-zorro” esaten dautsoen lorea , gure izenez kuku-lorea danak, goitik bera begiratzten dautse ingurukoai eta antxiña zuzitzat be erabilten zan ostatza deritxon lorea, zazpi lora-margo daukaz eta “zentauro” da bere izena.

Ezagutzen ez doguzan lora asko dagoz gure inguruan eta ezagutzen doguzanak be, ez doguz ondo ezagutzen. Ginbail zuriak erdi-erdian begi urdin bat dauka, basoko zanaoria esaten jako eta ur gitxiko erreka inguruetan bizi da. Urrebotioia oroit-bedarraren lorea da, kardabera morea...

Elaiak agertzen diranean, eguzkiak berotzen dauzan arrien artean agertzen da uda-goienean ilgo dan ela-bedar eta lorea

Txoriak, euren kumeen begiak argitzeko, landara onen ur-odolagaz igortziten ei dabez.

Ezin zenbatu geinkez zelaietako lorak! Bedar aundi artetik ba´goaz, urrats bakoitxean lora barriak aurkituko doguz. Azkenengo eta udagoiengan agertzen dana basoko azafrana da, zelaietako argi-ontzia.

Aizeak makurtzen dauzen gari elduen artean, urremargo orren alboan, udako egunik kizkalgarriengan, kilin-kolon ibiltzen dira lora batzuk, ikurrin baten antzekoak dira, margo urdiña alde batetik eta pitxoleten gorri bizia bestetik.

...

Landarak izadiko elbarriak, paralitikuak, dirala esaten da eta ez da osoan egia. Iñok ez dau ikusi landararik ibiltzen, baiña aziak euren ibillaldi luzeak egiten dabez, orretarako aizea naiz ura eroale lez artuta. Aziak ez dira ikusten txikiak diralako, baiña txartela ordaindu barik artzen dabe lekua itxas-ontzietan naiz bultzietan naiz egazkiñetan. Pitxoleta-lorea, esaterako, asko zabaldu da munduan. Loreak irakasten dauskue mendeak zear erriak bizi izan daben edestia, Jerusalem´en, Arabia´n, Ameriketetan, aibat lora- mota izan dira gudaldien lekuko. Lora batzuk India´tik gure artera etorriak ziran. Australia´n eta Zelanda Barrian izandako gudarien zorrotan etorria da koki-azia. Orki-bedarrak aizeak eraginda 1400 km egin leikez.

Aziak uger egiten be jakiten dabe eta ille osoetan irauten dabe uraren gaiñean

Eta gero lupetzera sartzen dira, esaterako igebedarra edo txaraska-azia. Oneik be millaka km.´ak egin dabez.

Arrigarria benetan, eskuetan artzen dogun edozein lora edo landararen azia, barruak landarea edo lorea izango danaren jokabideak argitzeko araudi edo kode zoragarria daroa.

...

Agertu da udabarria, iñoz ez daki zelan! esaten da, baiña landarak ba-dakie ori. Gaztanearen begi aundiak azal gogorra lertzen dabenean , egin oi: Ona emen udabarria!

Landarak udabarrian itxartu egiten dira, baiña lenagotik asi da jazokizun ori gertatzen, udagoieneko orri beillegiak jausi-orduko, agertu dira begiak lanadaren abarretan, baiña astiro ta kontuz, izotzak galdu ez dagizan

Loa gizonari naiz beste bizidun guztiai lez, bearrezkoa jake landarai, ez dabe neguan bakarrik lo egiten, urte guztiko gabetan be lotan dagoz. Landara batzuk amabi orduko loa bear dabe, beste batzuk amaseikoa..

Landara batzuk bizi luzea dauke, beste batzuk, ostera, jaioten diran urte beratan ilten dira., baiña beti beteten da euren elburua, alea ta azia emon, bere motako landarea galdu ez dedin.

**MARGO EDERDUN ENTZIKLOPEDIA´tik
OLAZAR´tar Martin´ek moldatua**

EUZKADI'TIK MUNDURA BEGIRA

Banuan, orain dirala urte batzuk, “Zer” izeneko aldizkari ontan baxtar bat, izenburu orrekin munduko politikari-buruz idazlantxo bat edo bat argitaratzeko. Nai nuke txoko ori birreskuratu ostera leio ortatik begira munduko gertakizunetaz mintzatzeko. Ta gaurko mintzaldi onen gai Espāñi izango bait da, onoko au eraman dezake izenburutzat:

EUZKADI'TIK ESPAÑI'RA BEGIRA

Gaurko, (ots, 2004'ko Azaro'aren 17'ko) izparringietan esaten danez, onoko itz auek jalki omen ditu. D. INOCENCIO ARIAS senatoreak Madrid'ko Senatu edo Lege-Batzar-Garaiean: “NACION izena Espāñi'ko Estatuari bakarrik ematen dio Kostitutuzioak. Ez da, beraz, zillegi “nazio” Autonomiei esatea”.

– ¡Bapo Iñoxentxiyo! ¡Ez dek alukeri makala esan! Kostitutuzio orrek, mutil, Kostitutuzio orrek... zuzentasunaren aldetik baliorik ez dik.

– Arrazoiketa garbi baten emaitza ez dalako. Bai, Iñoxentxiyo bai. Lege orok izan bear dik arrazoiketa leialaren alaba: “Ordinatio rationis”, “arrazoiaaren alaba”; “Ordinatio rationis in bonum communitatis”, “gizartearen onerako arrazoiaaren erakuntza”, eta beste edozein legek baiño geiago legeen lege dan Oiñarrilege edo Kostitutuzioak.

– Arrazoiaaren alaba ez ba'da, jakin nai nuke bā zeren alaba izan daitekean...!

– Bildurrarena, Iñoxentxiyo; BILDURRAREN alaba.

– ¿Zeri-buruzko bildurraren alaba?

– Ejertzituari-buruzko bildurraren alaba. Franko'k, oraindik osasuntsu zala, “ORO UTZIKO DUT LOTURIK ETA ONDO LOTURIK” esan zuanean, Espāñi osoan aski ugari gelditu zan, politika-era guztietako kulturadun jendea, kezketan sarturik bere buruari galdezka: “terrorista arroputz onek dion ori ¿egia izan ote daiteke?”

Gizon oiek ziran, Diktatorea illik, Espāñi'ko erri txiro, bikain, gaixoarentzat kostitutuzio egoki bat sortu zezeketena, baiñan ez zuten atseginki lan egiterik izan. Bildurrak menderaturik ari izan ziran. Beren eta ejertzituaren artean, gaiñera, an zeukaten ugari, Franko'ren garaieko jende falanjista, bera ere. Aznar bezala, kostitutuzio orenen aurka izugarrikeriak esanez eta aldi berean oraingo gure kostitutuzio-onen-gintzan lotsarik gabe eskuak sartuz.

Ondo zekiten gaiñera kostitutuziogille demokrazizale aiek, Espāñi'ko gudarozteak bere erriaren aurka borrokan asteko ez zuala falanjistengandiko bultzaketaren bearrik. Len ere maiz ibilli bai dira eginkizun negargarri ortan, eta gudan irabaziko garaitza ta domeña guztiak beren erriaren aurka borrokan irabaziak bait dituzte.

Orrela irten zan gudaroztearen eta falanjisten gustora zori makurreko kostitutuzio au. Ta gudarozteak berak artu zuan be eskuetan, kostitutuzio orren bidez eraturako Espāñi'ko NAZIO BAKAR ORREN zainketa.

Eta orrela, GUDARROZTEAK –eta FALANJISTEK– kostitutuzio ori dokumentu terrorista biurtu zuten; bertan idatzierazi zuten articulo batetik, onoko au adierazten baitu digute: Benetan Euzkadi askatu naiez asten ba'gera, berealaxe izango ditugula emen gure aurka, lurrez, airez, eta itxasoz, tiroka, bonbaka, oro erre ta kiskali arte, Espāñi'ko izkillu guztiak. Baita, adarka, lejiotarren auntza bera!

¿Ori, Iñoxentxiyo, ez al da terroriskeririk ikaragarrireneko terrorismoa? Ala, ¿oiñazeketa izugarri ori dana, euskaldunei izpiritua jasotzeko eta pozaren pozez zorionerik gozoenera eramateko izan ote zan pentsatua?

Orrelako Kostitutuzio oker bat jaio zitekealako kezka, “el Caudillo” odoltzalea bizirik zegoala ere Espāñi'n sortzen asi zala, esan dut; eta ori egiztatzeko, garai artako aapaldi labur polit bat badegula, Franko'ren alabak erditutako lenen semeari Madrid'ko Korteek Franko aitonaaren abizena jarri zioten denborakoa.

Bertso ori erregezale liberak batek –nere ustez Luca de Tena'k– idatzia da; eta neri beste erregezale batek. Lucas Oriol'ek, irakurria. Ona bera:

“Por la alta bondad de Dios
que en sus mercedes no es manco
en vez de un Francisco Franco
ahora tenemos dos.
Pero Dios nos libre, amén,
salvada por uno España,
de que doblando la hazaña,
nos salve el otro también.

Latiegi ta Eraso tar Bixente



BERGARA'KO ITUNBEN ETA BESARKADA (1.839 Dagonilla'k 31)

Laugune txikian etoikeri aundia

Bi gudaiburu: Espartero liberala eta Maroto karlatarra, biok españiar, Bergara'n alkar-besarkatu zuteneko urtegun gogoangarian. Arrezkero, eun da irurogei ta abar bider aldatu zaizkigu egutegiak. Eta Deba ibai ertzeko erri andikitsu eder artan gertatutakoak (gaurko iñork ikusi ez ba zuan ere) gure aragi bizitan dirau, ekarri zigun ondore latz eta samingarriagatik.

Bi guda-gizonen itunbena eta laztankada onen bitartez, guda luze bati ematen zitzaion amaiera. Eta onekin batera, euskal askatasunari txirristakadarik maltzurrena. Iñoiz ez bezela, gertakizun onexek amildegirik zuzen baragarrienean jartzen ginduan euskaldunok. Ta bai tristea Euskalerrri aske ta burujabe baten beera-beera au!

Karlistak eta liberalak

Uri aundiak bakarrik (Donosti, Bilbo, Gasteiz eta Iruña) agertu ziran liberal edo Isabel'en alderdiko. Karlisten gudari-sailletan genituan euskaldun geienak, eta bamen ziran ogeitamarren bat milla gudari. Euskaldun auek, Karlos'en alde egiñaz, Eusko Lege Zaarrak zaintzen zituztelakoan, zainbiziz alegindu ziran.

Zumalakarregi buruzagi zutelarik, ba-zekiten gure pizkunde-aurretiko txapelgorri aiek, Euskalerrri burujabearen babesak etzuala politikazko zirrikiturik, bañan bai arrixku aundirik.

Eta alabearrak eraginda, Ormaiztegi'ko seme ospatsu dugun Zumalakarregi'tar Tomas'ek, eriotzak jota, bete-eziñeko utsune sakona ez digu, ba, uzten euskal gudari-buru lerrotan!

Ta Zumalakarregi'ren orde zain jarriko-ta, Maroto murziarra, etoi ta saltzaille aundia.

Aldaketak ekarri zigun gaitza

Egundoko naasketa eta etsipena datoz jarraian euskal gudari tartera. Ta eusko defentsa (apurkaitz eta garaitu eziña zirudiena) zirrikituz bete zala esan genezake. Euskal gudarostearen buruzagitza aldaturik, lur-jo zuan Zumalakarregi'ren buru-asmoetan gal-gal zebillenak. Eta au etzan nolanaiko asmoa.

Dakigunez, etzuan Zumalakarregi'k errege izan-nai-tsuaren alde besterik gabe burruka egiten; oni lagunduaz,



Euskalerrria eskubide osoan ta bitartekorik gabe, jaun da jabe jartzeko baizik. Eta gero, bearbada, ainbeste zoritxar, larritasun eta zalantza elkartzen zizkigun koroiloturak etentzeko ere bai.

Ba'dirudi ba, bete-betean ulertzen zigula euskal arazo politikua, Foruaren esan-naia, alegia; eta euskaldun guztien alkartu-bearra euskal beregaintasun osoko laterria osaturik, Europa'n laterriak eratzen ari ziran moduan, Euzko Laterria ere egituratzeko.

Alboz-albo zeramazkian lankideengatik esan ote genezake beste onenbeste? Aidean gelditzen da erantzuna. Baiñan, Zumalkarregi'ren maillako izkillu-gizonik eta politikurik etzala osorik ziurtatu ditekena da.

Maroto ta Espartero

Zumalakarregi'ren asmoak eta Maroto'renak ezin izan berdiñak, au ez bait-zan euskalduna eta bai ildakoaren asmoen etsai. Beraz, au ala izanik, etzan Maroto'ren aldetik eta Espartero'renetik alkar-ezin ulertzekorik, españiar-etzpal bateko muskil bait-dira biok. Euskal arazo politikak enbazo egiten die.

Españiar-militarrek ulertu eziñak dituzte mugagarri zaizkieten jurisdizio-oztopoak, demokraziako politikagintza guztia bezelaxe. Dana, koroipeko guztia alegia, bat

egiña nai lukete, dana menpeko. Beraz, altxatzen ari zan Europa berriko lutamurik, Euskalerrria-ren agertze-arrixkua erabat kentzea zitzaizen garrantzikoena.

Ta ara bestea: Maroto. Besterik eziñean eskeiñi bai, eskeiñi ta aginduko zizkien euskaldunai auskalo nolakoa gauzak. Egiarekin dabillanak, besteak ere egi-zale dirala uste oi du. Eta orrelakoak giñan eta gera euskaldunok. Au dala-ta, diplomazi-maltzurra ezagutzeke, erraz iruzurtuak izan ziran gure joandan gizaldiko asabak. Ala dio euskal esaera batek: “Erdaldunen agintzak gezurrdak dira”.

Azkenik azkena

Etzuan Maroto’k bere etoikeriaren lekukorik izan zitekean euskaldunik begi aurrean eduki nai. Au dala-ta illerazi zituan Lizartza’n euskaldun karlatar gudalburu leialak, Zumalakarregi-ren asmoetatik urbil zebiltzanak.

Urte artan bertan, 1.839’gn. urtean, gure euskal erri-eskubideak aitorturik, Madril’etik emandako lege-agindu batek, galbiderik labaiñean ipiñi zuan euskal askatasuna.

Gero etorriko ziran beste agindu batzuk: 1.840’garrean, 1.876’garrean...

Eta arrezkero gure etsipena, gure etengabeko burrukak, gure askatasun-irrika.

Askatasunaren ezereztapena ta Euzkadi politikua

Erderaz esan oi danez, “de un plumazo” deuseztu ziguten urtegun jaikin oietan gure askatasuna (gure Foru ta Errijabetza). Eta 1.036’go gerrarekin Franco’k ere “esku-zartaz” beste ainbeste egin zigun askatasun aren ondakiña besterik etzan “Ekonomi-itunbena”kin.

Lege batez naiz lege-sail batez ain errez ezereztu (derogatu) ba’ziguten dana, oraindik betegabe zaigun gaurko Estatuto urri onen orde, zergatik ez genduan

abertzaleok kaltekoak izan zitzaizkigun españiar-lege aien aurkako beste “derogazio-plumazoa” eskatu, garai zarretako Euskalerrri kultural-zatitua pixuko Euzkadi politiku biurtzeko?

Foru-zaleen okerra: españiar izan baiñan maillaketa berezikoak

Foru-zaleak egundoko okerra egin ziguten Gobernu zentralaren taktika ametituz. Gobernu orrek mendekotzat jartzen zuan gure Batzar Nagusien burujabetza. Ordurarte parez-pare gizalditan izandako bide ta arreman politikuak etentzen asi ziran. Etziran foru-zaleak konturatzen koroiarekin bat-egiñik giñala aspalditik baiñan aren mendekoak eta gu ez giñala berdiñak: gu euskaldun, aiek españiar. Onarpen politiku onek gure euskal auzia “erregionalismu” uts biurtzen zuan berdinkorra. Foru-zaletasunari nazio-legami altxagarria palta zitzaion. Estadua aunitz naziodun zanik etziran jabetu. Auxe izan zan Arana Goiri’tar Sabin’ek egin zigun arkikuntza: Euskal Estaduak (Euskalerrria) aske izan ziran eta españiar koroiarekin egiñak zituzten itunak burujabetza ta beregaintasun orren jarraipena ziurtatzen eta bermatzen zuten. Auxe zan Foruaren esan-naia.

Sabin’ek bere nortasunaren kontzientzia itzuli zion Euzkadi’ri eta bere defentsarako, ordurarte aipatu etziran argumentuak (naiz-eta bidezkoak izan) eskeiñi zizkion. Egundoko astiñaldia artu zuan gure Erria’k. Baztarturik eta abaildurik zetzen euskal izkuntza, nazio-oiñari eta agerpen, zegokionez aintzakotzat artzen ari zan. Sabin’en akuillu, sustapen eta eragiñez, abertzaletasunak indarberritu zituan gure ezaugarri guztiak: oiturak, dantzak, folklorea, abestiak, elertia, ertigintza e.a. Bultzakada indargarri bide berria ireki zion Euzkadi’ri. Eta onela, urteren joanean ain nekez, eta adabakiz lortutako Estatutoak erriarnas itxaropentsua eman dio.

Egigain

EUSKERAZALEAK: URTEKO BATZAR NAGUSIA

Bazkide maitea:

Idazki onen bidez dei egiten dautsugu 2005’ko urtarrillaren 27’an (egunean) gure erakundearen etxean arratsaldeko 8’retan izango dan oiko batzar nagusira, urrengo egitamuz:

- 1.– Leengo batzar nagusiko agiriaren irakurpen eta onepena.
- 2.– Diru-egoeraren azalpena.
- 3.– Urteko ekintzen azalpena.
- 4.– Eskaera ta itaunak.

LENDAKARIAK

EUSKERAZALEAK: ASAMBLEA ANUAL

Querido asociado:

Mediante la presente te convocamos a la próxima Asamblea General Ordinaria, que se celebrará el día 27 de enero de 2005 (jueves) a las 8 de la tarde en los locales de nuestra Asociación y con el siguiente orden del día:

- 1.– Lectura y aprobación en su caso del acta de la Asamblea anterior.
- 2.– Estado de cuentas.
- 3.– Memoria de actividades.
- 4.– Ruegos y preguntas.

EL PRESIDENTE

GAILLURRA: SOKRATES, PLATON ETA ARISTOTELES

Filosofia guztiaren gaillura, Grezia´ko iru filosofok osotzen dabe:Sokrates, Platon eta Aristoteles´ek. Arrezkeroko filosofi guztiak orrein irakatsien oiñean ezarten diran oarrak dirala dirudi.

...

Sokrates K.a.´ko V gizaldian jaio zan, Perikles´en aldian., 470n. urte inguruan.Ez eban ezer be idatzi eta sinistebakoa zalakoan, Melitos´en salakuntza kontuan artuta, eriotzarako epaia emon eutsoen.Ber-berak edan eban zikuta edari ilgarria.Eriotzearen ostean betiko zoriona egoala itxaroten eban

Bere irakasbidea galderak egin eta artzen ebazan erantzuna osotzea zan, maieutika edo itaunketa deritxo irakasbide oneri.

Ezer idatzi ez ba´eban, nondik jakin zein zan bere irakatsia?

Platon bere ikaslearen “Alkar-izketak” dira biderik ziurrena, baiña alkar-izketarik zarrenak, antza dagoanez, zintzo agertzen dabe irakaslearen pentsaerea, azkenengoak, ostera geiago dira Platon beraren eritxiak.

Sokrates´en lanik biziena bere aurretiko sofisten eritxiak alboratzea da.

Alkar-izketetan lenengo izeka edo ironía agertzen da itaunean bertan, gero eztabaidatzea dator eta irugarren ekiñaldian egia agertzea

Irakatsi guztien oiñarrian arimea dago eta arima orretan dago egi osoa, alkar-izketaz agertzen dan egia. Eta or dagoz, baita, jokabiderako arau zuzenak.

Orretarako Buru argia daukagu, bakoitxarena eta guztiena dana.Ori da zorionsunerako bidea eta ori berori da Jainkoa.Ontasuna ta jakituria bat dira.Jainkoa norkia eta munduaren laguntzaillea da, baiña buru-argitasuna bera.

Sokrates´en eskolakoak dira Zinikuak, tiñakuan bizi zan Diogenes buru dala, baita Zirene´tarrak be, zentzunen lagunak eta atsegin-billatzaillak.

...

Baiña Sokrates aundiaren jarratzaillle zintzoa Platon izan zan. Onek Akademia eritxon irakas-lekua aurkitu eban, Akademos eritxon atenastarraren eleizatxua ta baratza.

Bere irakatsiak ez ebazan katalogatu, gero Aristoteles´ek egingo dauan lez.Bere irakatsiak alkar-izketetan aurkitu bear dira an-or-emen.Orrelan bere maixuaren maieutika edo itaunketa jarraitu eban irakasbide lez, baiña irakatsi asko ez dira Sokrates´enak, bereak baiño.

Platon´en irakatsirik arrigarriena eta gero Aristoteles´ek alboratuko dauana auxe da: Burubideak edo ideak

beste munduan dagozela eta ortik arima bakoitxera sartu dirala .Gero ez da egiten besterik an dagon jakituria agertu baiño, or dago zentzunen bide illuna eta arimearen argitasuna. Gorengo dagon burubidea ontasunarena da, ori da burubide nagusia eta jainkoa dan Demiurgoak ango ideak emen iluntasunean ezarri dauz gero buru argian dagozan ideak azaltzeko, ikastea arimako ideak gogortzea da, emengo gerizen laguntzaz

Arimea il-eziña da Platon´entzat eta betiko ideen bidez etikarako ta politikarako jokabideak aurkitzen dauz.

Laterriak edo jaurketak iru mailla daukaz Agindu bear daben buru-argiak edo filosofoak, euren ondoan dagozen zaintzaillak eta danari eutsi bear dautsen esku-langilleak eta lurgüiak. Orregaitik agintariak ez dira aukeratu bear demokraziaren bidez, izadiak berak daukaz aukeratuta.

Ertilarien aurka agertzen da Platon eta oneik gizartetik bota egin bear dirala diño, euren lanak egiaren antzekoa diran gauzen antzak baiño ez diralako

...

Baiña goazen Akino´tar Tomas´ek filosofoa esten dautson Aristoteles aztertzer.

Platon´en ikaslea da eta bide orretatik Sokrates´en ikaslea be bai.

K.a.´ko 384n. urte inguruan jaio zan Estajira errian. Amazortzi urtekoa zala sartu zan Platon´en Akademira. Geri Alejandro Aundiaren irakasle ta ezitzaillle izatera eldu zan.

Atenas´en Lizeon eritxon baso bat erosi eban eta an irakasten eban ibiltan ebillala, orregaitik deritxo peripatetiko eta inguru-ibiltaria. Lizeoak Akademiak baiño ospe aundiagoa lortu eban.

Bere irakatsiak ez dagoz an-or-emen, liburu egokietan eta bakoitxa bere lekuan baiño:Lojika-liburuak edo organo, 14 liburu dira;fisika-liburuak 43 liburu; lenengo filosofia, 14 liburu; etika eta politika, 19 liburu;edertasunari buruzkoak , 5 liburu.

Aristoteles´ek ez dau onartzen gauzak zer diran agertzeko Platon´en bidea, gauzen izatasuna beste mundu baten ez dagoalako, emen geure aurreko munduan baiño.

Lojika edo Organon´ek oiñarri lez kategoriak daukoz, itza lenengo kontuan artuta, gero esaldiak datoz.Esaldiak alkatu egiten dira, aztertuta, eta silogismoa sortzen dabe, baiña beste azterbide bat dago zientzia osotzeko, idea orokorrak edo unibersalak bear dira orretarako eta ori alboratze edo abstrakziñoagaz lortzen da.

Aristoteles´en azterbiderik sakonena “ilemorfismo” edo gaia ta betetzea alkartzea da eta orren oiñarria almena edo potentzia eta akto edo betetzea dira. Eta azkenean

lenengo betetzaillea edo “motor inmovil” eskatzen dau eta ori Aristoteles´entzat Jainkoa da.

Metafisika´n, Aristoteles ulertzeko ondo bereiztu bear dira gaa eta gaiñeratuak, suztantzia ta akzidenteak.

Aristoteles´ek zeatz aztertu eban Platon´en ideen mundua eta ideen mundu ikusi-ezin ori oso-osoan ukatu eban: Dana dator aurrean daukaguzan gauzetatik eta gure adimen egillea da ideak sorzten dauzana.

Arimea zer dan azaltzeko bere eragiña egiten dabengauzak, biziak, eta ori ez daukenak dakaz gogora. Biziak arimea dauke, eta izakia zelakoa dan, iru mailla euki daukez arima onek: bizia bera, zentzunak, adimena.

Jakitun onen idazkien artean garrantzi aundi bat dauke etikari ta politikari dagokiozanak

Politika-arloan bere bizitza larria agertzen da idazkietan: Gizona politikarako egiña dan aberea da eta polis edo uria da eginbear ori beteko lekua, askatasuna dauken gizakien bizi-lekua.

Zelan jaurri edo gobernatu uria, polis?

Gobernatzailleak jakitunenak izan bear dabe eta erarik onena erregetza da. Urrengo dator aristokrazia edo jakitun taldeen gobernu eta irugarren mailla demokrazia edo askoren gobernu..

Jaurkera guzti orreik onak dira, baiña guztiak ustelduleikez eta erregearen ordeztiranoa agertzen da, aristokraziaren ordezt oligarkia okerra, eta demokraziaren lekuan demagojia gorrotagarria..

Ezelan be ezin leikela onartu, diño, Platon´en komunismoa, sendiak eta banakakoak onartzen ez dauzalako.

...

Zori txarrez Platon´ek eta Aristoteles´ek lortu eben goi.mailla au beingoan jausi zan eta Aristoteles ez zan gizartearen agertu Abizena ta Aberroes arabiarrek Europa´ra ekarri arte. Ortik artu eban akinotarrak. Eta Platon´en ideak izan ebazan jarrartzailleak Agustin deunaren aldira arte eta ikasle kaskarrak izan ziran.

...

Filosofo aundi orreik ia aiztuta geratu ziranean, beste eskolabide batzuk agertu ziran. Ona emen labur-labur:

Epikurotarrak, atsegiñaren eta bizitza zoriotsuaren billa ebiltzanak; estoatarrak, bizitza baketsuaren billa ebiltzanak, Seneka ta Marko Aurelio enperadorea nagusi dirala; eszeptiko edo zalantzariak, eta azkenean filosofibatzaillak edo eklektikuak onein artean Erroma´ko Zizeron buru dala.

Platon´ek goraldia izan eban Platon-zale barrien aldirian Alexandria´ko Filon eta Plotino nagusi dirala eta ortik artu eben jakituria Eleizearen guraso zar askok, batez be Agustin Deunak

Eta Erroma´ko filosofiaren azken lez, Boezio daukagu: 525n. urtean il zan au espetxean eta beronen liburik onena, espetxean idatzia, “Filosofia´ren kontzelua” izan zan.

...

Idatz-zati au amaitzeko, esan dagigun filosofi guzti ori sartaldeko pentsaerak izan dirala, baiña zer? Sartaldeko gizakiak ez eben pentsatzen?

Bai, baiña beste bide bat artu eben sartaldean, mitoen bideak, eta au itzi barik jarraitu eben jakituria ta erlejiñoa bat eginda.

Or daukagu Buda jakituna, ardurak alboratu eta barruko bakea lortzeko bideak irakatsi ebazana, “nirvana” edo zorientasun osoa eskuratzeko bidea edo bardin dana, arimak munduan batetik bestera ibilli barik, el-mugara eltzeko bidea agertu ebana.

Or daukagu Konfuzio jakituna, eta oro Pertsia´ko erlejiñoa bideratu eban Zoroastro edo Zaratustra, onaren iturria dan Ormuz Jainkoa eta txarraren aturri da Ariman iragarri ebazana eta manikeiskeriaren bidez Agustin Santuaren bizitzara be eldu zana.

Beste pentsaera eta biziera bat sartaldeko au!

Olazar´tar Martin´ek



ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk´ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

SALMOAK

63N.: JAUNAK ESAN ZIEN “NI NAIZ”

1

Birgiñak zeuzkan zapi batzuek
Nekaldian laguntzeko,
zekialako larritzen zala
odola izarditzeko.
Aingeruari toailla eman
arpegia garbitzeko,
garbitu zien eta eldu zan
ordua arrapatzeko.

2

Nola zetozen beraren billa
Jaunak ezagutu zuan,
apostoluak irugarrenez
lotan argitu zituan.
“Lo egizue. Jeiki ta goazen
–esana zien orduan–;
ordu onetan jarriko naue
pekatarien eskuan”.

3

Jesusek iru apostolui
onela zien esana:
“Emen dator ni entregatzera
berak salduta naukana”.
Apostoluak au entzutean,
pasatuak ziran dana;
beste zortzirik artuta Jesus
erten zan gaiztoen gana.

4

Entzuna zuen soldadu-bulla
zetozen Jesus lotzeko;
lenengo Judas aurreratu zan
tranpaz musu emateko,
“Jainkoak salba zaitzala, Maixu”
esanaz ezagutzeko.
Emen izan zan Judas galdua
graziak ez iristeko.

5

Jaunak erantzun zion judasi
“Zertara zatoz laguna?”
Birjiñan errengangatikan
berri zaiatu zan Jauna.
Argi klaro bat bizaldu zion
Judasi biotz barruna;
“Damutu zaitte ta barkatua
dana izango dezuna”.

6

“Egiaz dizut: maite zaitugu
esperantzan zaudelako,
zuk nai badezu, gurekin bizi
iritxiko dezulako.
Nai ez badezu, gure asarrez
betiko pena dalako”.
Etzion entzun biotz gogor arek
desesperatu zalako.

7

Gaizto taldea Jesus austera
indarrez eldu zanean,
soldaduari: “Nor nai dezue”
galdetu zien onean.
“Nazareteko Jesus nai degu”
erantzun ziotenean,
danak kokotez erori ziran
“Ni naiz” esan zienean.

8

Egondu ziran zazpi miñutu
ilda bezela lurrean,
ta Jesus bere amaikarekin
begira beren aurrean.
Ama Birjiñak: “Jeikitzen utzi”
erregutu zionean,
Aitari otoitz egiña zion
bizitzara biurtzean.

Salmo berriak kantatzeko Dainua!

Jaun-goi-ko Ai-ta mai-te zai-
tu-gu ze-ru lu-rren E-gi-lla-a Jain-Ko
se-me-a, mai-te zai-tu-gu gu-ti-
on Sal-ba-tzai-lla-a Jaun Es-pi-ri-tu San-tu-a
ze-ra a-lai-ta-sun e-mai-lla-a gu-re
a-ni-man Se-na-rra ze-ra po-za
sor-tzen lan-gi-lla-a

**64N.: JUDAZ GAIZTUA
URKATU ZAN**

1

Alguztidunak baimena eman
lurretikan jeikitzeke,
galdetu zien: “Nor nai dezue?”
berriz berai entzuteke.
“Nazareteko Jesus nai degu”.
Jauna zan erantzuteke:
“Esan dizuet ni naizela ta
diot auei lagatzeko”.

2

Jesusi eskuk lotzera juan zan
Malko izena zuana,
Pedro Jesusi defenditzeko
zan ezpataz jarri zana,
Oni jo zion buruan eta
belarria kendu dana,
Jaunak sendatu belarria ta
zion Pedrori esana.

3

“Sartu ezazu ezpata ori
atera dezun tokira,
ezpatarekin iltzen duanak
berak ala ilko dira.

Ez aldezu nai nik supritzea
nere Aitari begira?
jakin ezazu deitu ezkeru
aingeruk datoz erdira.

4

Uste al dezu ez daukatala
nik eskatzerik Aitari?
Berak biralduko lizkidake
neri aingeru ugari.
Baiñan orduan nola erantzun
Eskrituran esanari,
Aitaren naia igarlearen
bidez esandakoari?”.

5

Orduan esan zien Jesusek
Judutarrari onela;
“Nola zatozte ni lotuzera
lapurra banitz bezela?
Au ez dezue egin Eleizan
zuekin an nebillela,
baiñan auxe da zuen ordua
illun, indar dezuela”.

6

Amak Jesusi eskatu zion:
“Apostoluai barkatu”;

eta amaikak alkarrengana
pixkana ziran juntatu.
Judas gaiztuak ikusitzean
joka zuela llagatu,
maldizioka eta ixilik
au ezin zuan tragatu.

7

Luziferrek au esana zion:
“Zuaz apaizarengana;
konfesatu zure pekatua
ta ordaindu dizu dana”.
Dirua bota ta esan zien
“Saldu det justua zana”.
Erantzun zien: “Begiratzea
zan lenengo zenduana”.

8

Judasi jarri zion etsaiak
tristeza mendeatzeko,
esanaz: “Obe dezu iltzea,
ez geiago supritzeko”.
Gezur aundi au sinistu zuan,
esana engaiñatzeko.
Arbol legor bat sokaz lotuta
bota zan urkatutzeko.

**65N.: JAUNA IZAN ZAN
LOTUA**

1

Ama Birjiñak Judasen berri
ezagutu zuanean,
negarrez zion: “Jauna ipiñi
gizonak osasunean.
Ez ditezela itxuturik il
peligro aundienean,
baiñan Jaunaren borondatea
bete dedilla danean”.

2

Salbatzaillean pena samiñak
ziran neurrigabekoak,
ez Beragatik, baizik gugatik,
miñez gu erostekoak.
Fede santuak suplitu beza
guk ezin esandakoak,
eskerrak eman ta maite zagun
gera seme ordekoak.

3

Jesus loturik eramateko
apaiz Amasen etxera,
kate astuneg gerria, lepo
ta eldu eskuk lotzera;
ta ez petxura jarri zizkaten,

baizik gora bizkarrera;
Satanas barruz sakrilejioak
egiten erakustera.

4

Beste bi soka lotu zizkaten
katearen gaiñetikan,
soka luze bat bota zioten
kristori eztarritikan.
Bere gorputza bildu zioten
petxuan kruzaturikan,
bi mutur luze laga zituen
tiratzeko puntatikan.

5

Bigarren sokak serbitu zien
bere bi besok lotzeko,
gerria ere lotu zioten
“sorgintzan ez igesteko”.
Beste bi punta laga zituen
eskuk espaldan jartzeko,
ta bi soka-mutur aietatik
tiraka arrastatzeko.

6

Onela lotzen laga zioten
Alguztidun Jaungoikoak,
Jetzemaniko baratza artan
len berak botatakoak.

Eskuak miñez jarri zizkaten
esanaz maldizioak
aundiak eta benenosuak
iñork entzun gabekoak.

7

Judutar aiek Jesusen kontra
zeuden arro amorruan:
“Jaunak berezko indar aundia
gure alde gorde zuan”.
Maltratuta Anasengana
eldu esanaz orduan:
“Gaizkillea da, il bear dana”.
lotua gaizton moduan.

8

Esaten die: “Jauna ekarri
dizugu gizon gaiztua;
erria dauka sorginkerizta
gaiztakeriz bildurtua.
Oraingo ontan ezin da izan
igesteko indartua”.
Salbatzaillea bere aingeruz
zeguan inguratua.

**Aldalur'tar Justiñe
(Klaratarra)
Gasteiz**

EUSKERAZALEAK

(ITZALDIA BILBAO'N 2004-19-24:OLAZAR'TAR MARTIN'EK)

GAIA:H'AREN ARAZOA ARGI ETA GARBI. (LABURPENA)

1.- Izkuntza eta onen ortografia erreztuten:

- Erdia-aroan "H" asko baiña arau barik agertzen dira erderazko idazkietan.
- Latiñaren "H"ak kentzen:habuit-ovo-(Mio Cid.)
- "F"ren ordez "H"ak:facere-hacer.
- Ber-Jaiotzan barrero sartzen:habuit-hubo
- Frantzerak, euskerearen erdiak baiño ez daukaz.
- Italiarrek lau "H" baiño ez (he,has,ha,han).Besteak oguztu egiten dira:Ghiesa .
- Euskeran :Iparraldean 30 000 inguruk oguzten dabe Egoaldean ez da oguzten eta 600 000 gara euskaldunak Kendu bear zanean,batuak sartu egin eban.

...

2.- Arana'tar Sabin'en ortografia:

- Arau nagusia eta zurra:Izki bakoitzak ikur bat, fonema bakoitzak grafema bat.
- Irarkola edo inprentetako arazoak:"l" marraduna ta "r" gangarduna.
- "ll" ta "ñ" euren lekuetan ondo dagoz.
- Errazoizkoa eta ikasteko oso erreza da ortografi ori!

...

3.- Zergaitik sartu zan "H" a?

Euskal kulturaren iraultzaille izan nai ebenak sartu eben:Alderdi politiku barri bat,kultura barri bat eta euskera barri bat nai ebelako.Eta ori HB edo ETA ren bidetik:Idatzita dago;"H" a iraultzaren sinbolo plastikoa da.Saizarbitoria ren Elerti-liburuan dagoala uste dot.

Ori argitzeko, jakin gerkeraz izki onek, "H" k, "eta" daukala izena.

Iparraldekoa zan Pierre Lafitte k Euskaltzaindiaren batzarrean esan eban:"Ez zaieteze sartu iparraldeko euskerearen itxas-ontzira,ondatzera doan ontzia da-ta".

Gaiñera, zergaitik artu bear gendun, batua egiteko,600 000 "H" gabeko euskaldunek 30 000 ek baiño oguzten ez dabe "H" ori?

Batuaren aita dan Luis Mitxelena k esan eban "H" aren indarra gazteak dirala "indar biologikoa", baiña orduko gazteak gaur ez dira gazte, eta non dago indar ori?

Sartu zan "H" ori sartzekoa ba zan, eta zer ekarri dausku? Naste bildurgarria, ikasteko eragozpen aundia, idazteko gaiztasuna ikaragarria, eta onurarik ezer be ez.

...

4.- Erriak diñoana:

Orain urtebete-inguru ETB'ra dei egin eusten arazo au taldean aztertzeke. Joan nintzan eta an aurkitu nebazan Xabier Kintana,Xabier Madariaga eta Abel Muniategi ber-

tsolarien eratzaillea, beste batzuren artean.Agertu genduzan geure eritxiak eta,olakoetan oitura dan lez,ETB k mikroa kalera atera eban itaunketa egiteko:Erritar guztiak agertu ziran "H" ren aurka eta gure zuzendariak argi esan euskun:"Erantzun orreikaz "Euskerazaintza" pozik egongo da. Egia zan.

Madariaga jaunak be esan eban ETA k batuaren alde jokatu ebal.

...

5.- Ikastoletako arazoa:

Ez dakit konturatzen garan zenbat ordu eta egun bear diran "H" a non ipiñi ikasteko eta gaiñera betiko zalatzakaz geratzeko!

Gure ikastoletako ikasleak erreztasuna aurkitu bear dabe euskerea ikasten asten diranean, eta zelako sailtasuna aurkitzen daben!

Bizkaitarrok naiko gendun"s" ta "z" ren arazoa,beste bat gaiñeratzeko!

...

6.- "H" ak zergaitik irauten dau gaur?

Lenengo, Euskaltzaindiak ain gogor zaintzen daualako. Euskeran beste erru guztiak parkatzen dauz, baiña ez "H" rik ez erabiltea.Orregaitik galdu dodaz lau lan leku eta orregaitik ez da agertuko gure egutegi"tako" 2005' rako,BBK k laguntza kendu dauskulako.

Eta bigarren, Eusko Jaurlaritzak ain gogor eusten dauasalako. Eta emen jazoera bat esan bear dot:"H" a ezarteko sasoi aretan, 1975n. urte inguruan, Esku liburuak argitaratu genduzan ikastoletarako:Erlejiñokoak,Elertia Aita Santi k idatzia,Lutelestia Elorrio ko Iñigo Agirre k eta Gregorio Arrien ek idatzia eta beste batzuk.Esku-liburu oso egokiak, baiña "H" bakoak. Jaurlaitzak debekatu egin ebazan eta oraintsu ber-egokitzeko edo erreziklatzeko bota doguz 10 tone liburu Tolosa n.

...

7.- Orain zer egin?

Bizkaierearen alde, baiña "H" a gogo aundi barik onartuta dauken erakundeak gogoratu bear doguz emen:Labayru,Mendebalde,Bizkai-Irratia,Lauaxeta ikastolea eta ebar. Oneikaz errez alkartu geintekoz EUSKERAZAINTZA-EUSKERAZALEAK, baiña "H" bagarik idaztea aske daukagula.

Guk argi ta garbi jarraitzen dogu "H" aren aurka eta badakigu egunen baten esango dabela:"Areixek euker erraioia"

Zein dan urtenbidea? "H" a kendu eta kito.Orretarako ez dago ezer be ikasi-bearrik!

OLAZAR'tar Martin'ek

1.- GAUAK ETA EGUNAK, URTE-AROK, GIROAK

Ona emen, gure lurra obeto ezagutzeko gaiak, Margo Ederdun Entziklopedia'tik artuak, Nemesio Etxaniz itzul-tzaille dala.

Lurra tronpoi baten antzekoa da, biribilla baiña goitik bera luzetua. Eta eguzkiaren inguruan biraka dabil, bide batez tronpa orren antzera albora okertzen dala.

Tronpa oneri luzeen dan lekuan asita beste aldera zuloa egiten ba'dautsagu, punturik puntura doan ziria litzake lurraren ardatza eta goian daukagu ipar-burua edo iparraldeko poloa eta bean ego-burua edo ego-aldeko poloa.

Lurra osorik ez da ikusten inondik be, ikuslearen alderdia bakarrik ikusten da.

GAUA TA EGUNA

Gure lurak eguzkitik artzen dau argia argiagaz batera beroa. Eta argia ta beroa artzen dauzan lur-erdi ori eguna da eta beste erdia gaua.

Baiña ogeta lau ordutan lurak bere buruari bira emoten dautso eta ordu orreitan eguna ta gaua dira lurraldean aldutzen doaz.

Orregaitik, lur-garrion, ekuadorrean, gauak eta egunak beti bardiñak dira, ez orrelan garritik ipar edo ego-bururantz goazenean: Or, non dan, eguna ta gaua luzeagoak edo laburragoak izango dira eta ego naiz ipar-buruan sei illebeteko eguna edo gaua eukiko dogu.

URTE-AROK

Lurrak eguzkiaren inguruan 365 baiño geiatxuago diran egunetan egiten dau bira osoa, baiña tronpearen antzera alboratzen da urte orretan eta erdian eguzkiari erakusten dautso ipar-burua eta beste erdian ego-burua, batean sei illebeteko eguna dagon artean bestean sei illebeteko gaua dago, irailletik martira eta martitik irailera.

Eguzkiari begira dagoan lurraldean udea da eta bestean negua. Orrelan ba, gu otzez gagozenez Australia'n eta Arjentina'n bero egiten dau.

Udearen eta neguaren bitartean udabarria ta udagoiena ipiñi dira.

LUR-AZALA


Lurraren azala, ipar-burutik ego-burura, neurtu gura ba'dozu, 40.000 km. dira. Tren batek, orduko 70 km. egin




Udabarria.



Uda.



Udagoiena.



Negua.

ezker, 23 egun bearko leukez urten dan lekura barriro eltze-ko.

Antxiña gure lur au eguzkitik aldendu zanean, dana sua zan eta beroa zabaltzen eban inguruan, baiña gero, apurka-apurka otzitu eta inguruan eukan lurruna ur biurtu zan. Orrelan agertu ziran errekek eta itxasoak, basoak eta landak, baiña oraindiño be lur-barruan sua dago, ez da otzitu. Ortik sortzen dira sumendiak.

GIROAK

Lurraren inguruan aizea daukagu, eguratsa, eta orregaitik bizi al gara lur-gaiñean, arnasea bear dogu-ta.

Eta eguratsaren eragiñak aizeak sortzen dauz eta eragin orrek laiñoak otzitu egiten dauz, euriak lurra ezotu dagian, guri janariak emon al izateko.

Laiñoak ez dira besterik itxasotik eta lur-gaiñeko uretatik sortu diran lurrinak baiño. Ur biurtzen diranean, euria izaten dira eta lurra ezotu. Gero, beroagaz barriro lurruntzen dira, edo lurra ondu-ondoren, barriro itxaso doaz ibaien bidez.

Era miragarria lurra emonkor biurtzeko!

Olazar'tar Martin'ek

ERBESTETIKO BIDEZ-BIDE-IBILTZALE ZARRAK EUZKADI-ZEAR

XV MENDEKO AZKEN-AMARR-URTE-AROAN

XV MENDEAN, EUZKADI'N 6 ESTADU.- Bi izan-go dira mende orren urteetako azken amarrekoan Euzkadi'n ibilli zirako gaur aztertuko ditugun oin arriñeko giza-semeak. Amarreko orren barruan zer urtetan emen ibilli zitzaizkigun ziur esaterik ez dugu. Biak atzerritarrak: Epañiarra bat, Jaun de Padilla; Alemaniarra bestea, Arnaldo Von Heriff. Biak utzi zizkiguten idatzirik gure Euskalerrri oni-buruz bere baitan sumatu zituzten sentimendu ta gogoetak.

Ez da asko, utzi zigutena, baiñan zarra dalako badu bere balioa.

1490'ren inguruan, arnaska ta neketsu Aitzkorri-malda igotzen ari zitzaigun Juan de Padilla españiarretik asiko dugu gaurko lana.

Jaun de Padilla ori Epañiarrara zalarik ¿nola esan dedan atzerritarra zala? Bâ..., erbestekoa zalako. Araba, Bizkai, Gipuzkoa, Laburdi, Naparroa ta Zuberoa, Laterri Yareak, ots, Estatu Libreak, Independienteak, bait ziran orduan.

Urte ortan bazuan oraindik Naparroa'k bere erregea, zuzenki mintzatuz, bere erregeña: Kataliñ. Andre au Labrit'eko Yon'ekin ezkondurik zegoalako, biak izan oi dira Naparroa'ko Errege izendatuak.

Urte ortan bertan, 1490'ean, auek ziran Naparroa'ren inguruko erregeak:

- Frantzi'n, VIII Karlos
- Aragoi'en II Fernando;
- Gaztelerrian I Isabel ordurako Bizkai'ko Andre Yarea zana, Bizkai'k erantzukizun garai ori eman ziolako.

BIZKAI, LATERRI YAREA.- Orduan Jaun zuan Gaztelerriko IV Enrike'ri muziñ-eginda gero, muzindutako errege orren arreba, Isabel, artu bait zuan tamalez Andretzat: Andre yaretzat: Gaztelerrian IV Enrike'k Errege yarea izaten jarraitu zuan bezala, Andre yarea izan bait zan Isabel Bizkai'n.

Agian, irakurle, txantxakeri utsa irudituko zaizu esatera ninjoakizun au, baiña IV Enrike ill ondorean Gaztela'ko Erregiñ, ortarako eskubiderik ez zuan Isabel'en orde, ortarako eskubide osoa zuan Yone izan ba'litz, Isabel, soilki Bizkai'ko Andre izanez jarraituko zuan, eta mendeak-zear belaualdiz-belaunaldi, Monako. Andorra,

Liechtenstein eta Luxenburgo'ren antzera gaur, agian, Bizkai Jaunderri Yare, edo "Señorío Independiente" bat izan-go genuan.

Antziña artan orde ez zion Isabel'ek Bizkai'ri, itxuraz beintzat, maitasun aundiegirik izan.

Ori bera gertatu oi zan gure Jaun eta Errege guztiakin: ez zioten beren Erriari zaletasun geiegirik izan. Beren burua izan zuten maite, ez beren agintaritzapeko Erria. Bakoitzak bere burua gorago jasotzeko gertu egon ziran beren erriari bizkar emateko. Gaitz aundia egin zion "Jauntzak" Bizkai'ri ta Erregetzak Euskalerrri osoari.

ISABEL BIZKAI'KO ANDREA, GAZTELERRIKO ERREGIÑ-GAI.- Isabel Andreari ere ajola gutxi izan zitzaion Bizkai'gatik. Gaztelerriko Erregiña izatea izan zuan gogorik aundiena, eta ori lortzeko gudara arrastatu zuan Bizkai.

Bi ziran bâ urte aietan Gaztela'ko erregeñ-gaiak:

- IV Enrike erregearen arreba, edestiak "la Católica" esango diona, eta

- IV Enrike orren alaba, Yone Gaztela'ko printzesa: bere jaiotza zikintzearren, Isabel'en alderdiko Aundiekiek "La Beltzaneja" izendatu zutena, Juana erregeñaren eta erregeñ orren adiskide izan zan Beltran de la Cueva ministroaren arteko lizunkeritik sortua zala zabalduz.

Yone ta Isabel'ren arteko borroka, onek, Isabel'ek irabazi zuan. 1469 ezker bera senarra zuan, Aragoi'ko II Fernando, Toro'n, azkeneko borrokan, garaille irten zalako.

Orain Epañi'ko gotzaiek aldareetara jaso nai dute beren "Isabel la católica" maite ori, baiñan ez ziran oso garbiak izan Erregetza lortzeko erabili zituan erak. Badut Isabel "La Católica"z astiro itzegiteko gogo, eta egingo dut, beste batean, gaur gure Euskalerrri ontako bertsolari ta bertolaritzaz nai nuke bâ zerbait esan.

Gure ibiltari biak ia-ia aipatu ere egin gabe utzi ditugu. Egingo dugu ori beste egun batean, eta, bietan aurrenekoa olerkaria bait zan, aztertuko ditugu bere bertsoak, eta baita azterketa ortatik gure gaurko bertsolarientzako jakingai batzuk atera ere.

Latiegi ta Eraso'tar Bixente

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

2.- TXIMIÑOIAK

Toki batzutan tximiñoiak pizti politak izaten dira. Titi deritxona txiki-txikia da eta gizakien eskuetan pozik egoten da.

Beste tximiñoi batzuk larrosa-koloreko ulea dauke, illuntxuagoa, eta buruan ulezko buruñurdua. Benetan ederrak. Beste batzuk orlegiz jantzita dagoz. Beste batzuk gorputz-atal aundiak daukez eta buztana be luze-luzea. Onek bistagarren esku baten beste-ko laguntza emoten dautse, esaterako igaliak artu eta agora eroateko. Zaurituten ba'dabe, buztanagaz zugatzetik eskegita geratzen dira.

Tximiñoi-motarik geienak zugatzetan bizi dira. Brasil eta Guaiana'ko basoetan dagozenak orroaka ibiltzen dira egun guztian. Eta orregatik deritxoen orroegilleak.

Batzuk gautiarrak dira eta gabontzaren antzeko musturra dauke. Oneik egunez lo egiten dabe zugatz-zuloetan. Jateko arrapatzen dabez inditarrak.

Ba-dagoz buztanbakoak diranak be, eta oneixek dauke gizakiaren antzik geien. Eta euren artean mota bakar bat dago anka biren ganean dabilena, Asia'n bizi dan "jibon" mota., baiña zutunik egiteko eta ibilteko beso biak buruaren atzetik zearkatu bear dauz. Benetan baragarria da.

Gure inguruko piztitegietan "makako" deritxoña da ezagunean. Orangutan izenak "basa.gizona" esan gura dau.

Zurrik luzeena daukenak, 17 zm., Borneo'n bizi dira.

Mandrill anker aundiak margorik argiena musturrean dauka eta txinpanze tximiñoirik onena da. Onexek dauko gizonaren antzik geien buruan.

Baiña aunditasunean guztien gaiñetik dagoana "gorilla" motakoa da.

Begiratu basoko zoko illun aretara, odoldiz beterik dagozan zugatz-adarren azpian, pizti bat dago, zugatz-orpoan jesarrita sabel aundiaren gaiñean eskuak dituala,



Zoragarria tximinoien mundua.

illunabarreko zaratak entzungurean. Ulea ta musturra baltzak daukoz. Begiak illunak eta zabal-zabalik. Basoko piztirik ankerrena da. Eta zugatzaren abar lodietan, urkulluan, berak egindako abibaten, emea dago umeakaz. Orregatik dagoz esandako begiak dizdiz. Pizti anker batenak ete dira? Ez ete da basoan aurrean erabilli eta arerioengandik iges egin dauan basa-jaun batenak?

Zutundu egin da pizti erraldoi ori! Anka okertuen gaiñean dago. 1'80 aundiarea eta 200 k pisua. Arriskuren bat somatu ete dau? Zarataren bat entzun bear ba'da?

Orbelak batu eta onein atzean ezkutatu gura dau. Baiña asmoa aldatu eta orbelak eta abarrak bota ditu. Bere begiak su biurtu dira eta ikubillakaz bere bularra jotzen dau. Eta inguru guztia ikaratzeko lako garraziak egiten dauz. Beste orroa illun batek erantzuten dautso. Basoetako basurde bakartia ta bekoki-illuna da.

Basurdea bere bidetik doa eta barealdia sortu da.. Gorila isildu eta biotza baketu jako. Iretargia zeruan dizdiz dago eta diñotso gorilari: Jaun baltza! Zu zaintzen naukazu!

**MARGO EDERDUN ENTZIKLOPEDIA'tik
OLAZAR'tar Martin'ek moldatua**

ANDRA MARI DANTZA-TALDEA (1)




1958-12-8 Galdakaoko plazan.

Espatadantzari izango zan Gainza Jauna eta beste gazte bat, taldean dantzan egundo egin ez ebana Begoña-ko Karmelon zegoen GAZTEDI dantza taldera pausu batzuk ikastera joan ziran, gero, Galdakaon irakasteko asmoan; baña orrela ezin ikasi eta Gazteditik “TXINBERA” espatadantza eta dantza soltua dantzaten ere irakastera etorri zan.

Dantza taldearen lenengo jaialdia Usansolon bandera zuri bategaz dantzatu zan. Gero Azion Katolikako bandereagaz jantzan egin bearko genduala baña Zugutzun egon zan gerra aurreko espatadantzarien bandereagaz dantzatu zan.

Bandera orrek, inguru guztian eta liga modure kordel antzeko bat lotuta euki eban, iru koloretan: gorri, zuri ta berdean.

Bandera dantza egiteko, iru koloretako ligen deuela banderea obeto erabilten zan.



1914 garren uztaillaren 31n'ean, San Inazio egunean Galdakao'ko Zuazo parajeon, Zugutzuko Santa Barbara espatadantzari taldea, euren bandereagaz, gure eskoi aldeko espatadantzariak aidean daukona bera. Eta dana P. Chalbaud abade Jesuita jaunari ezker. Gaurko Andra Mari dantza taldea sortuten asi zanean, eta Galdakaon 1958'garren urtean dantzan egiteko, Zugutzuko Santa Barbara elizako D. Inazio abade jaunaren eskutik Andramariokak lortu eban banderea bera, ainbeste urte eskutuan egonda gero.

Baña denpora areitan iru kolore orreitako gauzak erabiltea galazota egoan; eta bandereari iru koloredun liga ori Egiarte txistulariaren etxean kendu yakon.

Banderearen Asta kristenagaitik esaten eben urre zurizkoa zala eta eleizako sakristian, dantza taldean desgertu zan.

Makil txikirako eta makil dantzarako lenengo makillak eta espatadantzarako lenengo espatak ere, fabrikako pistonera lantokian egin ziran.

Galdakaoko Cine Región taldearen lenengo jaialdia abenduaren 26an egin zan, bai dantza-taldea beragaz eta Antonio Aiesta “Jitano” albokaria eta Erromalda Zuloaga yantzalari ta pandero jotzallearen soñu eta kantu otsetan, baita Martzelo Arrieta “Borlas” soñulari eta Erromaldaren laguntzaz ere dantzatu zan. Jai aldi aretan baita Bilbo'ko Robles Arangiz eta Ainarak eta Ondarruko Argoitia Anaiak be parte artu eben.

Gure ezkerretetik asiezkero eta gure eskoiaratz joanaz, zutunik dagozan espatadantzariak German Maeso, Jose Luis Martinez, Jose Luis Agirre, (Gerra aurreko espatadantzarien bandera eta beren makillakin), Jose Mari Gainza, Jesus Uriarte, Bizente Arroyo, Pedro Inazio “Kepa” Artetxe, eta Nazario Barrenetxea dira.

Gure ezkerretetik asiezkero eta nesken artean, Begoña Busket eta beronen ostean dagoen espatadantzaria Justo Estrada, eskoiarantzago, Maribel Txaurrondo, Rosa Mari Bilbao, Mariangeles Gainza, Kontxi Gainza, Maria Isabel Asua, Rosa Mari Sagardui, Maite Urrutikoetxea, Ana Mari Atutxa eta alboan Juan Jose Altuna dantza-taldeko txistulari gaztea.


Makurtuta dagozan lau neskak gure ezkerretetik asita, Abeli Gutierrez, Mari Karmen Iturriaga, Begoña Uriarte, eta Ana Mari Irigoien, mutillen artean eta ezkerretetik asita, Karmelo Martinez, Jose Mariano Barrenetxea, Jesus Mari Ariznabarreta eta Pedro Mari Azkueta dira.



Galdakaoko plazan, gure ezkerretetik asi ezker eta gure eskoiarantz, zutunik dagozan irlanderak, Abeli Gutierrez, Maribel Txaurrondo, Begoña Uriarte, Kontxi Gainza, Rosa Mari Sagardui, Mari Karmen Iturregi, ta gure ezkerretetik asita, makurtuta dagozanak, Rosa Mari Bilbao, Begoña Busket, Ana Mari Irigoien, Ana Mari Atutxa eta Maite Urrutikoetxea. Lurrean jarrita dagoena, Mariangeles Gainza.



Andra Mari Eusko Dantzari Talde'ko sarreraren atzetan eginda eta jarrita dagozan alboka baten anagrama edo irudia, 1982 garren urtean jarrita.



Andra Mari dantza taldeko Ainara Artetxe, Mariano jaunak bertan euki eban alboka eskolan. Albokearen bustarria eta adar txiki edo alboka agoa eginda gero, buztarria eta adarra kañuberakin ustartz-en, albokea osotzeko bidean.



Sarai pandero-jotza-
llea, Erromalda
Zuloaga pandero-
jotzaile kantari ta
jantzalari ospetsu
zanaren birloba; eta
bere alboan, Asier,
Andra Mari dantza
taldeko albokari gaz-
tea. Andra Mari
dantza-taldeko nire
alboka eskolara
agertu ziran ikas-
leak, gazteenak,
Begoñako Karmelon
dagoen GAZTEDI
espatadantzari tal-
deko Peio Etxebarria
eta Andra Mari dan-
tza-taldeko Asier
Balenzia izan ziran,
gaztetxo bakoitzak
urte berean eta
azkenengo lau illa-
betetan amaika urte
zituzela.



Argazkiko albokea Martin Agirre (Bedia 1842-1892) albokariak jotzen ebana da.
Alboka au, eta Zaratamokoa ere, etzeko baster baten aitzuta itxi, eta ez nebazan aurkituten.
Urte bi inguru geroago Andra Mari dantza-taldeko Koldo Telleria, nire etxera, kañubera kurauak alboka batzuk egiteko billa etorri, eta kortan goruetan egiteko tresnagaz batera, albokak saku baten barruan agertu ziran, zitzak jota, eta kañubera barik.
Nik Bilbon Feria de Muestras-en egin nindun "artesanaria"ri buruzko erakusketan, Bedia'ko albokea kañubera barriaz umidu eta bustarriaren zitiz ziloak ere ondo estaldu eta albokea dotore jarri eban, argazkian agertzen dan lez.
Bediako albokea Errenteriko artesanaria erakusketan ere egon zan Andra Mari dantza-taldetik eroanda.
Uste nuen alboka ori talde baten egoteko ezala, ez iñungo eskuetan ere, eta neuganatu neban egun baten Museo edo Erakustoki baten egotekoa dalako; eta Jainkoak nai badu olan izango da.



Ainara Artetxe albokea jotzen. Alboka eskolan, albokearen arnasea, melodiak eta koplak kanteu, albokearen soñuan dantzan egin, alboka bat egin eta albokea jotzen irakasten zan.

Jose Mariano Barrenetxea

ERRIALDE GUZTIEN EDESTIA

2.– EJIPTO (K.A. 5000-1200)

Antxiñako denporetan gaur Sahara basamortua dana zugazti eder bat zan baiña astiro-astiro legortu egin zan eta ango jentea Nilo ibaiaren ondora urreratu eta ibai onen inguruak ez ziran zabalak.

Lan aundiak egin bear izan ebezan: Basoak garbitu, bakar-lekuetan baratzak sortu, etxeak ugari egin, laztozko etxeak.

Inguru orretan geroago ta jente geiago batzen zan eta Nilo ibaiari esker lurra oso emonkorra biurtu zan lanari esker, baiña nekazaritzarako langille larregi egoan eta uri aundietara batu ziran beste lanbide batzuk asmatzeko: jantziak egin, egur-lanak ikasi, lanerako tresnak gertatu eta dana azokan saltzeko.

Ikusten dan lez, bizi-modu barriak burubide eta giza-lege barriak sortzen ebazan. Orregaitik, gizon azkar bat autatu eben buruzagi, Faraon, inguruan bere agintari taldea eta abadeak ebazala. Oneik ez ziran bizi nekazaritzatik eta ez esku-lanetatik edo salerosketatik, erriak ordaindu bear ebazan zergetatik baiño. Eta jenteak aunditzat artu egiezan, etxerik ederretan bizi izaten asi ziran.

Faraon'em agintaritza bere semeengana igaroko zan.

Agintari aundi onen entzutea eriotzeagaz amaitzerik ez eben nai eta ortxe dago piramideen sustraia, oroigarri izango ziran illobiak dira.

Piramideetan Faron bakoitxak bere aberastasunak pillatzen ebazan Faraon'en gorpuagaz batera.

Faraon'en agintea aunditu eta lurralde barrietara zabaldu zan eta orretarako gudak egin bear izan ziran eta geienak egin eta irabazi be egin ebezan, Niloz gora niaz itxaso-barrurantz.

Guda irabazten ebanean, etsaiak morroi biurtzen ebazan eta lanik gogorrenak egitera beartuak izaten ziran. Oneik izan ziran piramideen egillerik geienak eta eundak urteen barruan jauretze edo tenplu arrigarriak be eurak ebin ebezan. Gaiñera menpean egozan errietatik zerga aundiak eskuratzen ebazan Faraon'ek.

Jainkoen laguntza irabazteko egiten ziran jauretze eder oneik eta orralan ziur egozan osasuna, ondasunak eta zorion bete beti izango zirala Ejipto'n.

Euren Jainkoak eguzkia, Nilo ibaia bera eta beste asko ziran eta euren irudiak agertzen dauskuez, erdi-gizon-erdi-pizti biurtuta. Menperatzen ebezan errietako jainkoak be Faraon'en laguntzaille biurtzen ziran.

Luzaro ibilli zan Ejipto Faraon'en menpean eta abadeen esanak egiten.

Ejiptoarrak trebeak ziran arria lantzen, izardia ezagutzen, etxeak egiten, eta izar-mapa arrigarriak egiten.

Idazteko "papiroa" artu eben, ziakaz eginda, eta ortik etorria da gure ingi edo papel izena. Garrantzi aundikoak izan ziran beti eskribauak eta oneik euren irudi ederretan idazten agertzen dira.

Margolaritzan be trebeak ziran oialetan naiz arrietan. Euna edo telea egiten be onak ziran eta urrea atera, landu eta arri-bitxiz edertzen be esku onekoak.

Baiña geienak txabola-zuloetan bizi ziran eta an egiten ebezan sukaldari-lanak egun-sentian asi eta gabera artea. Eta nekatuta amaitzen eben eguna. Bizi-modu tristea alako. Ez zekien mundu guztiko nagusi izango ziranik.

Gaur Alkairo'ko museoan gauza asko eta arrigarriak ikusi daitezke. Aurretik ikusgarriak dira piramideak eta euren artean dagoan esfinje ederra, baiña piramideen barruan aurkitutako edertasunak agiri dira museoan, benetan ikusgarriak.

Ez zan Ejipto erri bakarra, aldi berean edo laster beste erri asko sortu ziran sortalde arrigarri aretan, erri bakoitza bere erakunde eta legeakaz eta bere lanbideakaz, bere gudakaz eta zergakaz, bizi-modu bereziagaz. Orreri zibilizazioño edo jendakuntza deritxogu. Guztiak daukez euren legeak eta jauretza.


Guztiak dauke, baita, euren izkuntza, euren idazkera, euren eresa, margolaritza eta kontu edo ipuiñak eta euren edertia.

Guztiak alegindu ziran euren lana, euren izar-ezagutzea, eta euren aizeen jokera bereziak, urte-giroak, zenbaki edo neurketak, euren landarak ezagutzera emoteko bideak agertzen, baiña bata besteagandik ondo be ondo bereizten ziran.

Gorabeera aundiak be izaten ebezan guztiak: egualdi epelak eta beroegiak, euri egokiak eta etxeak eroaten eutsezan uriolak... eta guzti ori nondik etorren jakin gura bideratzeko? Korapillo guzti oneik askatzeko bide lez, errialde guztiak erlejiñora jo eben eta or sortu zan izaki bat eta batzuk Jainkoa edo jainkoak.


Eta guzti ori alkartuta erriaren jakintza edo kultura da.

MARGO EDERDUN ENTZIKLOPEDIA'TIK Olazar'tar Martin'ek moldatua



K.a. 2000: Inditarra guda galdu: Iges.

1.- IZARRAK, LUDIA, GIZONAK



Izardi
ezbardinak.

Ortzia ezagutzeko lenengo alegiñak Kaldearrak egin ebezan, orain 3000 urte dirala.

Arrezkero beti izan da bizi-bizi ortzia ezagutzeko guraria jakintza guztietako gizonengan: Babilonia'n, Grezia'n... Satu gaitezkan gu be pizka bat mundu zoragarri orretara.

Ikusten doguzan izarren ugaritasunak arritu ginduzan, baiña laster konturatu giñan askoz geiago zirala eta ez dirala guztiak bardiñak, itxurea antzekoa izan arren: Batzuek beti toki baten dagoz eta beste batzuk tokiz aldatzen dira. Ibiltari diran onei, naizta izarren antzekoak izan, izerbel edo planeta izenak jarri geuntsen.

Oneik, antziñakoen giro aretan jainkotzat artuak izan ziran eta gizakien ardurea artzen ebela uste izan eben, onerako naiz txarrerako.

Artizarra zan ederrena (Venus), beste bat gorri-gorria gudaren jainkotzat artu eben (Marte), ba-zan zuzentasunaren jainkoa be (Juris Pater/Jupiter).

Antziñako Txina'tarrak ikaratu egiten ziran egunezko illunaldiak, eklipseak, jazoten ziranean ete errensuge aundi batek eguzkia iruntzi egiten ebela uste eben eta euren mandariñak ori zer zan argi azaldu arren, ez eben sinisten.

Ortzia ikustetik sortua da antziñatik astrolojia edo jaiotza-egunean izarrek zelan egozan ikusita, geroa ezagutzen ebenen sasi-jakituria.

Zentzun geiago dauka izarren nondik norakoa agertzen dauan izar-izti edo astronomiak.

Millaka milloi izarren artean gu bizi gara. Ludi au ez da auts-ale bat baiño eta auts-ale onetan, beste askogaz zer naz ni?

Argiak segundo baten 300.000 km egiten dauz eta eguzkitik ona etorteko zortzi minutu bear dauz. Orain zazpi minutu eguzkia amatau ba'lit, guk oraindiño eguzkiaren argia eukiko geiunke.

Urren dagoan izarra Zentauro'ko Alfa deritxona da eta andik ona etorteko argiak lau urte ta bederatzi illebeta bear dauz. Zelako ibillaldia!

Baiña urrutikuzkin edo teleskopioak zeru-sabaiaren barrura garoaz eta eun milloi izar ikusi dakez gure galaksiaren barruan eta galaksia onek 100.000 argi-urte daukaz aldetik aldera.

Galaksia orren ostean uts-une baltz aundi bat dago eta arago antzeko beste galaksia asko: Iru-zoko deritxon izar-laiñoa edo nebulosa 700.000 argi urtera dago. Ba-dagoz beste izar-laiño batzuk, Andromeda esaterako. Au ikusi leiteke urrutikuskin barik eta lau milloi argi-urtera dago emendik.

Ba-dagoz beste izar-baiño batzuk bi milla milloi argi-urtera eta ikusi leikezenak.


Eta izar orreik baiño arago zer? An izardia biribiltzen asten da. Izadia, antza, kontxa aundi baten antzekoa da. Eta arago? Illuna, utsa, ezerez?

Baiña orain, astrolojia ta astronomia'ren ostean astronautika etorri jaku. Gizakiak izar orreik ikustera joan nai dabe eta asi dira joaten, itxas-ontzien ostean, ortzi-ontziak daukaguz eta onein barruan dagozan geletatik begiratzen dabe ortzi-gizonak, Kolon'ek Ameriketako lurak begiratu ebazan antzera.

Gagarin, Titov, Shepard dira lenengo bide-egilleak eta gaurko gazteai dagokie bide orreitatik jarraitzea, gure mundu aundi ikaragarri au ezagutzeko, bear ba'da eguzkia baiño urriñago joango zaree zuek gazteok, gizaki guztien izenean.

An, bear ba'da, gu baiño adimendun aurreratuagoak aurkituko dozuez, guk ezin lortu dogun bakea egiten ikasiak.

**Olazar'tar Martin'ek
Margo Ederdun Entziklopediatik eratua**



Bin-Bag: Mundua
sortzen.

ABIZENAK

Andrinoa: Bizkaia'n zabaldu eta jatorriz Andrino da. Balladolid'en agertzen da 1515n. urtean.

...

Anduiza: Natxitian dago etxea. Naparroa Naparroa'ko epaitegietan 1520n. urtean agertzen da.

...

Angiano: Errioxa'tik dator eta Mendibil'en agertzen da idatzita 1335n. urtean.

Angi-gamon deritxon landarea da. Lili-antzekoa.

...

Angiozar: Izen ori daukan errian sortu da eta Elgetan be ba-dago etxe bat.

Erderazko gamon da angio lili antzeko landarea da. Zar landu bakoa dala dirudi, berezkoa. Aundia be izan leiteke: Ori da txakur-zarra!

Angiozar, orduan, lili-antzekoak diran berezko lorak dagozen tokia da.

Arrasate'n agertzen da 1530n. urtean.

...

Anso: Ando'ren atzera, bedar-lekua da. Euskalerrian oso abizen zarra da. Ortik ei dator erderazko Santxo IX gizaldian agertzen da.

...

Ansoategi: Anso bedar-lekua dala, -tegi'k asko ta batuta dagozela diño. Anso eta Santxo'ren etxea be izan daiteke.

Arrasate'n 1566n. urtean daroa batek abizen au.

...

Antia: Zegama'n etxea, baiña jatorriz andia dala, dirudi. 1644n. urtean daukagu Urretxu'n.

...

Aoiz: Izen au dauken erriak badagoz, eta abizena Lunbier edo Ilunberri'n agertzen da 1531n. urtean. A- gero-koa da eta oiz barruti-lekua.

...

Apalategi: Lazkao'n etxe bi. Batzuk bizileku apala esan nai dauala diño, baiña ziurrago karraskak edo arte txikiak dagozan lekua. (Apak).

Getaria'n agertzen da 1474n. urtean.

...

Apaolaza: Motriku'n eta Mutiloa'n etxeak. Apaola: Arte txiki asko eta -tza asko-tokia. 1672 Segura'n.

...

Aperregi: Araban agertu zan, Zuia-aldean 1681n. urtean. Gero Bizkai'ra zabaldu da.

Arte txikiak edo Carrasca'k dagozen egia edo aldapea da.

...

Apestegia: Baigorri'n eta Baztan'en etxeak.

Abadearen etxea esan gura dau, baiña apal edo artetikien tokia be izan daiteke.

1711n. urtean Santiago'n agertzen da eta sarritan epaitegietan.

...

Apodaka: Araba'ko Zigoitia'n dago erri bat. Gero Muxika'n eta Arratia'n abizena.

Arándano edo garau baltzak dauzan basarana da, ori zan antxiña apo- eta -aka toki-atzizkia.

Abizena Bilbao'n agertzen da 1770n. urtean.

...

Apoita: Mallabia'n agertzen da 1563n. urtean. Gero Zeanuri'n.

Apoi-arandano edo aranbaltza da eta -ta toki atzizkia: -eta:

...

Apraiz: Busturi'n agertzen da eta Bizkaia'n zabal dabil. Arte txikien tokia. 1645n. urtean Arrasate'n.

...

Arabaolaza: Legazpian eta Amoroto'n etxeak.

Ara- bedar-lekua da -ola- eta -tza ugaritasun atzizkiak. 1558n. urtean Urretxu'n abizena.

...

Arabio: Elorrio'n iru etxe, -goikoa-, bekoa eta -urrutikoa.

“Ara” irea da eta -bi- eta -o toki atzizkiak.

1575n. urtean Elorrio'n abizena.

...

Araluze: Bilbao'ko Abando'n eta Naparroan dagoz etxeak.

Izan leiteke “aranluze”, ibarluzea, edo iratza luzea.

1751n. urtean Bilbao'n.

...

Aramaio(na): Araba'ko errialdea da eta bizkaieraz berba egiten dau.

Ara- irea da -ama- ta -io toki-atzizkiak.


1461n. urtean Gatzaga-Leiniz'en agertzen da eta gero sarritan Arrasate'n 1530n. urtean.

...



Aranburu: Zabal euskalerrri osoan. Ibarren goialdea esan gura dau. Seguran agertzen da 1374n. urtean.

Olazar'tar Martin'ek

EUSKALDUN BARRIENTZAT



GIZA-IRUDI bardin bi dagoz marrazki onetan.
Zeintzuk?



MARRAZKI ONETAN 7 ERRU DAGOZ

KARMELE

Agur jaunak:

Lehenengo eta behin eskerrak emon bizkaieraz idaztearrrik; zoritxarrez ez daukagu holango aldizkari askorik.

Zuen azken alean ERRIA izeneko arloan zera irakurri dogu: ANDRA MARI DANTZA TALDEA (1) izeneko artikulutxo bat, Barrenetxea'tar Jose Marianok izenpetuta. Eta han agertuten diren datu batzukaz bat be akorduan ez gagozala esan behar dogu.

Artikulu hori nahiko luzetxoa da eta ez goaz xehetasun guztietan sartzean, baina hasieran agertzen dan datu bat ez da zuzena: Andra Mari Dantza Taldea ez zan sortu 1957 an, 1955 ean baino. Hori orain 25 urte direla kontrastau zan datu bat da, eta arrezkero bost urterik bost urtera urteurrenak ospatu doguz; datorren urtean, 2005 ean, 50.urteurrena ospatzen goaz eta, bide batez esanda, hemen gagoz horrerri buruz zuen aldizkarian zeozertxo idatzi gura badozue.

Amaitzeko beste gauzatxo bat esan behar: Barrenetxea'tar Jose Mariano ez dogu taldekidea aspalditik. Ez dakigu zergaitik idatziko eban idatzitakoa baina bera ez da gai Andra Mari Eusko Dantzari Taldearen izenean berbarik egiteko.

Gure ustez taldearen bozeramaile bakarra zuzendaritza batzordea da.

Horrexegaitik, eta amaitzeko, zera eskatuko geunskiozue: hurrengo alean goian aipatutako sortuera urtearena zuzentzea ze 1955 garrena da.

Eskerrik asko gure eskutitz hau onartuteagaitik eta hemen gagoz zuek gura dozuenerako.

**ANDRA MARI EUSKO DANTZARI
TALDEA
Zuzendaritza batzordea**